

OLATUEK HERRESTATURIKO MALKOAK

“Giggle”

OLERKIA, A KATEGORIA

Marinelak

Itsasotik dator,
haize gazia,
ordua heldu dela ohartarazi die *marinelei*.
Itsaso zabalera irtengo dira...

euren familiako kideak jakin-minaren gosez utziz.
Gosete honek luzaro iraungo du...

Itsasoko gazitasunak
ez die egarria itoko,
ura errutik edanagatik.
Eskuman bego,
eskuman bego.
Baina bueltan direnean,
eurekin ekarriko dute senideak asetzeko adina arrain,
denboraldi batez lasaitasunez
ase daitezten.

Ekaitza

Zure haserrea
udako gau beltz batean irteten den
ekaitz latza da,
zerutik amorruez eta indarrez
jausten den
tximista zalapartatsua.

... laster,

... hilabeteak, apika.

Haizearen xuxurlak

Denbora gehiegi daramazu
baso ilun horretan herraturik.

Denbora gehiegi,
itsaso barearen bila,
berauekako uretan hondoraturik.

Ene sentipenen testigu,

HAIZEA

Iraganeko haizea etengabe dabil dantzan.

Ez dit lorik egiten uzten, ordea,
gauero

ene gelako gortinak inarrosiz.

Bila itzazu,
belarrira helarazten dizkizun melodiak.

Bila itzazu,

haizearen xuxurlak.

Eta irten zaitez.

Irten, bai.

Irten preso zauzkaten korronte artetik.

Irten itsasertzera.

Haizearen xuxurlek gidatuko zaituzte gainazal bareraino.

Kresala

Kantauri Itsasoko urdintasunean
islaturik aurkitu zaitut.
Olatuek itsasertzera zakartzate,
euren apar zurian ostendurik.

Hauskor...

Gozo...

Lotsati...

labar eta harea artean gorderik.
Olatuek dakarten ausentziak
ene harrizko gorputzarekin
talka egin du.

Ausentzia: *kresala*.

Gazitasunak min ematen dit azalean.

Mingarri zait itsasoko *kresala*.

Itsasargiak

Itzala,
zalantza,
malkoak;
zalantzen itzalei eskainirikoak.
Bortitza oso, haize bolada bat.
Itsasertzeraino narama: amildegia.
Eta laster iluntasuna izanen da nagusi,
itsasargiek argi egiteari utziko baitiote.

* * *

Itsasargien argitasunari erreparatu nahi diot.

Kresala gozo bihur dadin nahi nuke.

Ekaitza baretu dadin gura dut.

Haizearen xuxurlek une horri ukitu melodikoa eman diezaioten nahi nuke.

Marinelak bueltan nahi ditut.